

## GIL 63 Mutriku-Debako pinakulu-karsta



Astigarribiako pinakulu-multzoaren ikuspegia. Begiratu eskuineko harrobiari.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 16' 35,12" N

Long.: 2° 22' 15,36" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 551.019,76 m

Y: 4.793.572,21 m



### Nola iritsi

Deba herrian, Deba ibaiaren Sasieta meandroatik inguratzen duen errepidea pinakuluetako biren artean pasatzen da: agregakinen harrobi baten jarduerak ebakia dagoen bat eta beste txiki bat. Hegoalderantz jarraituz gero, Lasturrera doan GI-3230 errepidea hartu behar dugu.



Pinakulurik txikienetako baten xehetasuna.

## GILaren deskribapen laburra

Mutriku-Deba eremuko modelaketa kartsikoa da, eta erliebe konikoak eta are hemisferikoak sortzen ditu, gutxi-asko bakartuak eta antzeko kotan daudenak, 130 m inguruan. Mendi-mazelak estaltzen dituen artadiak ez du uzten ondo ikusten kareharrien gainazal meteorizatua, baina lapiaz partez estali bat ageri da. "Karst poligonal" (Williams 1971, 1972), "Tower karst" (Sweeting, 1995) edo barne-sakonune konikoak dituen "Cockpit karst" gisa sailka daiteke modelaketa karstiko hori, eta eskualde heze epel eta tropikale-tako tipikoa da. Airetik begiratuta, arrautza-kaxa motako topografia bat gogorarazten du, gainazal lau samar eta azpihorizantal batetik disoluzioz eratua. Sasieta inguruan, azalera hori 150 m inguruko kotan dago. Gainazal hori, ziur asko, higaduraren ondorioa da, eta handik sortuko zen modelaketa exokarstikoa, beheranzko disoluzioz; gaur egungo kostatik Sasietako meandrorra bitarteko tartea hartzen du, ibai-haranari jarraituz. Horregatik, substratuaren litologia bera den arren, haranaren barrualdeko erliebeek askoz kota handiagoak dituzte (gutxi gorabehera, 350-400 m garai dira). Oinarria 48-50 m-an duen dolina handi batek bereizten ditu 150 m-ko kotak dituzten mendiak 350 m-tik gorakoetatik.

Urgondarreko kareharri kretazeoz eratuak daude erliebeak. Sakonera txikiko plataforma bateko kareharri mikritiko errudistadun eta koraldunen masaz eratuta daude; masa horiek, gune batzuetan, mendixka-izaera dute. Erdi Albiarreko plataforma karbonatatu baten hondakin tolestu eta higatuak dira kareharri horiek. Plataforma hori sakonera txikiko itsaso tropikal batean garatu zen, zeinak bereizten baitzituen garai hartan Iberiar plakatik urgaineratutako lurak (hegoaldean) eta Europar plakatik urgaineratutakoak (iparraldean).

## Behatzeko punturik onena

GI-3230 errepidean, Astigarribiako ermitaren parean.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 23, GIL 25, GIL 27, GIL 28, GIL 43, GIL 45, GIL 48, GIL 60, GIL 101, GIL 102, GIL 103, GIL 119, GIL 135, GIL 79.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 60, GIL 62.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b> Praileaitz haitzuloa.					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifikoa

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/63-l.pdf>
- Agirrezabala, L. M (1996): *El Aptiense-Albiense del anticlinorio norvizcaino entre Gernika y Azpeitia*. Doktore-tesia, EHU, 429 or.
- Aranburu Artano; I. Vadillo Pérez; L. Damas Mollá; F. García Garmilla; P. Iridoy; M. Arriolabengoa; A. Berreteaga; C. Olaetxea (2010): "*Degradación de los espeleotemas de la Cueva de Praileaitz I (Deba, Guipúzcoa)*". Cuevatur.
- Arriolabengoa, M., Aranburu, A., Iriarte, E., Olaetxea, C., Iridoy, P., Damas Mollá, L., Vadillo, I.: *Registro endokárstico de la Cueva Praileaitz I: estratigrafía y evolución*.
- Ford, D. eta William, P. (2007): *Karst Hydrogeology and Geomorphology*. Wiley & Son (ed.) Ltd. 562 or.
- Williams, P.W. (1971): "*Illustrating morphometric analysis of karst with examples from New Guinea*". Zeitschrift für Geomorphologie, 15, 40 – 61.
- Williams, P.W. (1972): "*Morphometric analysis of polygonal karst in New Guinea*". Geological Society of America Bulletin 83, 761-796.